

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zeure ingurua aprobetxatuta:

- ✓ Ikerketa baten arabera, 6 emakumetik bat ez omen dago batere gustura bere gizonezko bikotekideak etxean egiten dituen lanekin; gizonezkoen % 73, aldiz, pozik omen daude emakumezko bikotekideak etxean egiten duenarekin. Eta zuk zer iritzi duzu? Pozik al zaude etxekoek egiten dituzten lanekin? **Ikusi** EiTbko [Airean saioan sortu den eztabaida](#); ondoren, **grabatu** audio labur bat zeure iritzia eta eskarmentua adierazteko, eta, azkenik, **igo** audioa euskaltegiaren blogera edo/eta **konpartitu** ikaskide batekin.
- ✓ Orain, proposatuko dizugu zuk zeuk **ikerketa bat egitea**. Aste honetan, **erreparatu telebistako iragarkiei**, batez ere etxeko lanei zein etxeko lanen banaketari erreferentzia egiten dieten iragarkiei. Zer irudi ematen dute etxeko lanen banaketari buruz? Zer errealitateren berri ematen dute? Berdintasunaren ala desberdintasunaren isla dira? Aste osoan jasotako adibideak eta ondorioak **idatziz bildu, ikasgelara eraman** eta **konpartitu** ikaskide batekin.
- ✓ Ba al dakizu zer trikimailu erabili ahuakate gogor bat azkarrago heltzeko eta, horrela, egunean bertan jateko? Bada, **ikusi bideo hau**, eta ikusiko duzu zer erraza den! Ziur gaude zeu ere trikimailu baten baino gehiagoren jabe zarela: ukendu magikoren bat ardo-mantxak kentzeko, auzoko kristalik garbienak izateko trukua, arropak lisatu beharrik ez izateko teknika zoragarria... **Eraman** zerrrenda bat ikasgelara, ezagutzen dituzun truku eta trikimailu horiekin guztiekin. Baietz ikasgelako beste inork baino gehiago eraman! Nahi izanez gero, **grabatu** bideo labur bat, erakusteko zein den trikimailu hori, eta **igo** euskaltegiaren blogera.

Internet aprobetxatuta:

- ✓ **Ikusi** Kratky Films-en (Praga) [El sueño imposible \(Amets ezinezkoa\)](#) izeneko animaziozko filma. Film labur horrek (7'08'') Tina Jorgenson-en jatorrizko ipuinean du oinarria, eta etxeko lanen banaketa desorekatuari buruzko hausnarketa egiteko aukera ematen du. Ondoren, **idatzi** testu laburra ikusitakoaren laburpena egiteko eta filmak sortu dizun iritzia azaltzeko. Azkenik, **igo** testua euskaltegiaren blogera edo/eta **konpartitu** ikaskide batekin.
- ✓ **Irakurri** Oihan Txabarrak ALEA aldizkarian idatzitako [Komunztadura](#) izeneko artikulua. Hona hemen "aurrerapen" txiki bat: *"Badakit, ez begiratu horrela, ez dugula lortuko generoen arteko berdintasuna merkatalguneetako puerikultura sailetan. Baina etsaia ez dago bakarrik pijama arrosa eta urdin pastel gorrotagarriak diseinatzen dituzten multinazionalen baitan, gure baitan ere badago, ezkutatuta, gauza nimiñoenetan azaleratzeko prest"*. Irakurri ondoren, **komentatu** ikaskideekin: zer iruditu zaizue?, ados al zaudete hark esandakoarekin?, bat al zatoz hark emandako ikuspuntuarekin?...
- ✓ Geratu ikaskide batekin, eta banatu zuen artean **bi dokumentu hauek (bata, bideoa; bestea, audioa)**. Ikusi edo entzun, nork berea, egin laburpentxoak, eta **elkarri azaldu**.
 1. [Etxeko lanak \(3TXULO saioa\)](#). 3txuloko lagunek neskak eta mutilak berdinak garela erakusten digute. Emakundek esaten duen bezala, berdintasuna gustatzen zaigu. Saio egokia iruditu zaizu ume txikiei azaltzeko etxeko lanetan ere berdintasuna lortu behar dugula?
 2. [Etxeko lanak egiten irakatsi seme-alabei \(Ikasbil ataria\)](#). Beatriz Ezeiza hezitzailearen gaurko lezioan, seme-alabak etxeko lanetan nola trebatu ikasiko dugu: zein adinetan zer egin dezakete haurrek?